



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruña, 2002ko ekainaren 5a

62 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- Foru Legea, 2002-2004rako Nafarroako Enplegurako Plana finantzatzeko neurri osagarriari buruzkoa. Osoko Bilkurak onetsia (2. or.).
- Foru Legea, Nafarroako Podologoien Elkargo Ofiziala sortzekoa. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.).
- Foru Legea, Nafarroako Fisioterapeuten Elkargo Ofiziala sortzekoa. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Legea, toki administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea aldatzeari buruzkoa. Osoko Bilkurak onetsia (8. or.).
- Foru Legea, ezgaituak lan merkatuan sartzeari buruzkoa. Osoko Bilkurak onetsia (12. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako Gobernuako kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioiko goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legea aldatzekoa. Osoko Bilkurak bazter utzia (14. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Antsoaingo udalerria hartuko duen oinarriko osasun eskualde berri bat era dezan. Osoko Bilkurak onetsia (15. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuak bultzatutako Kalitatearen Legea errefusatzeko du. Osoko Bilkurak bazter utzia (15. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Legea, 2002-2004rako Nafarroako Enplegurako Plana finantzatzeko neurri osagarriei buruzkoa

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2002ko maiatzaren 23an egindako Osoko Bilkuran, 2002-2004rako Nafarroako Enplegurako Plana finantzatzeko neurri osagarriei buruzko Foru Legea onetsi zuen.

Biltzarreko Erregelamenduko 143. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 27an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

2002-2004rako Nafarroako Enplegurako Plana finantzatzeko neurri osagarriei buruzko Foru Legea

Nafarroako Gobernuak eta Foru Komunitatean ordezkari gehien dituzten enpresaburu elkarte eta sindikatuek, alegia, Confederación de Empresarios de Navarra, Unión General de Trabajadores de Navarra eta Nafarroako Langile Komisioek, izenpetu duten 2002-2004rako Nafarroako Enplegurako Planak neurri eta ekintza asko biltzen ditu bere helburuak lortzeko. 2002ko ekitaldian haiek egiteko baliabide publikoek 141,7 milioi euro egiten dute.

Nafarroako Gobernuak konpromisoa hartu zuen behar finantzario horiek betetzeko, eta Nafarroako Parlamentura igorritako 2002ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko proiektuan zehatz-mehatz bildu ziren. Aurrekontua onetsi ez zenez, Enplegurako Planeko neurri garrantzitsu batzuk finantzaketarik gabe gelditu dira.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 41. artikuluko 1. idatz-zatiak agindu bezala, Nafarroako Gobernuak, posible denean, Foru Lege horretan aipatzen diren aurrekontu-aldaketen bidez, Enplegurako Planaren beharrak finantzatzeko ditu 2002rako luzatu den 2001eko Aurrekontuetan bilduriko kre-

dituetan aski hornitu ez badira. Adibidez, inbertsio eta enplegurako fondo galdurako dirulaguntzarako kredituak. Izan ere, kontusail hori, aurrekontu luzatuan Enplegurako Planean baino 12,48 euro gutxiago baditu ere, handitzen ahal denez, Nafarroako Gobernuak osatzen ahal du Planean finkaturiko mailara iritsi arte.

Hala ere, Enplegurako Planeko beste ekintza batzuek, berriak izateagatik edo aurrekontu luzatuan finantzatzen ziren kontusailak osatzea ezinezkoa izateagatik, aparteko kredituak eta kreditu osagarriak behar dituzte. Lehenengoan artean energia berriztagarrietarako Prestakuntzarako Zentro Nazionala, gaur egun eraikitzen ari dena, abian jartzeko gastuak daude. Izan ere, kontusail horri, Zentroa kudeatzeko aukeratzen den formularen arabera, gastu eta transferentzia arruntak aplikatuko zaizkio. Planean beste bi ekintza aurreikusten ziren laneko arriskuei aurrea hartzeko, hala nola, arlo honetako etengabeko prestakuntza eta laneko arriskuei aurrea hartzeko Foru Komunitateko ordezkariendako dirulaguntzak. Dirulaguntza horiek 2002rako luzatu den 2001eko aurrekontuko "Laneko arriskuei aurrea hartzeko ordezkari sektorialendako laguntzetako programa" deritzon kontusaila ordeztzen dute eta, hein handi batean, haren bidez finantzatzeko dira.

Kreditu osagarriei dagokienez, alde batetik, horien bidez Nafarroako Enplegu Zerbitzuari esku eman nahi zaio Enpleguari buruzko Nazioarteko Jardunaldiak antola ditzan, eta bestetik, Zerbitzu horrek enpleguko berariazko programetarako entitate publikoekin izenpetu duen Hitzarmena oso-oso-rik bete dezan.

Neurri finantzario hauek Enplegurako Plana hertsiki betetzeko behar diren bestelako aurreikuspenekin osatzen dira, hala nola, Foru Lege honetako 4 eta 5. artikuluetan aipatzen direnekin. Azkenik, xedapen gehigarriaren bidez etengabeko prestakuntzarako ekintzak hobeki garatzen ahalko dira.

1. artikulua. Nafarroako Enplegu Zerbitzuari, 2002-2004rako Nafarroako Enplegurako Planaren beharrak betetzeko, aparteko kreditu hauek ematen zaizkio:

– 300.506 euro energia berriztagarrietarako Prestakuntzarako Zentro Nazionala abian jartzeko. Aparteko kreditu hori 2002rako luzatu den 2001eko aurrekontuko “Energia berriztagarrietarako Prestakuntzarako Zentro Nazionala abian jartzeko gastuak” izeneko 880000-84400-2269-322202 kontusailaren bidez finantzatuko da.

– 210.354 euro laneko aurriskuei aurrea hartzeko programaren beharrak finantzatzeko. Aparteko kreditu hori 2002rako luzatu den 2001eko aurrekontuko “Laneko arriskuei aurrea hartzeko etengabeko prestakuntzarako ekintzak” izeneko 882002-84200-4709-322100 kontusailaren bidez finantzatuko da.

– 180.304 euro laneko aurriskuei aurrea hartzeko programaren beharrak finantzatzeko. Aparteko kreditu hori 2002rako luzatu den 2001eko aurrekontuko “Laneko arriskuei aurrea hartzeko Foru Komunitateko ordezkariendako dirulaguntzak, 1995eko Nafarroako lan harremanetarako sektorearteko itunaren babesean sortuak” izeneko 870000-83100-4810-315106 kontusailaren kontu finantzatuko da.

2. artikulua. Kreditu osagarri hauek ematen zaizkio, 2002rako luzatu den 2001eko aurrekontuko kontusail hauen bidez finantzatuko direnak:

– 60.101 euro, “Nafarroako Enplegu Zerbitzua” izeneko 880000-84000-2269-322200 kontusailaren bidez.

– 60.101 euro, “Nafarroako Enplegu Zerbitzuak enpleguko berariazko programetarako entitate publikoekin izenpetu duen Hitzarmena” izeneko 880000-84000-4459-322200 kontusailaren bidez.

3. artikulua. 1 eta 2. artikuluetan aipatzen diren aparteko kreditu eta kreditu osagarriak,

330.556 euro arte, 2002rako luzatu den 2001eko aurrekontuko “Laneko arriskuei aurrea hartzeko ordezkari sektorialendako laguntzetarako programa” izeneko 870000-83100-4810-315105 kontusailaren bidez finantzatuko da eta gainerakoa, 480.810 euro, 2002rako luzatu den 2001eko aurrekontuko “Aurreko ekitaldietako superabitaren aplikazioa” izeneko 112000-11400-8700-000000 kontusailaren bidez.

4. artikulua. 2002rako luzatu den 2001eko aurrekontuko “Energia berriztagarrietarako Prestakuntzarako Zentro Nazionala abian jartzeko gastuak” izeneko kontusailari gastu arruntak ez ezik transferentzia arruntak ere aplikatzen ahalko zaizkio.

5. artikulua. 2002rako luzatu den 2002eko aurrekontuko “Europako Batasunaren fondoekin batera finantzaturiko enplegurako ekimenetarako ekintzak” izeneko 881002-84100-4810-322100 kontusaila eta “Etengabeko prestakuntza” izeneko proiektuko ekintzak, 1. kapitulukoak izan ezik, handitzen ahalko dira.

Xedapen gehigarri bakarra

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen dirulaguntzak eman, kudeatu eta kontrolatzeko araubide orokorrari buruzko ekainaren 9ko 8/1997 Foru Legeko 18. artikuluko 2. idatz-zatian aurreikusiriko bermeak ez zaizkie aplikatuko Nafarroako Enplegu Zerbitzuak etengabeko prestakuntzarako INA-FRE fundazioarekin izenpetu duen Hitzarmenaren ondoriozko ekintzetan parte hartzen duten prestakuntzarako entitateei.

Azken xedapen bakarra

Foru Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Foru Legea, Nafarroako Podologoek Elkargo Ofiziala sortzekoa

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2002ko maiatzaren 23an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Podologoek Elkargo Ofiziala sortzeko Foru Legea onetsi zuen.

Biltzarreko Erregelamenduko 143. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 27an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Nafarroako Podologoek Elkargo Ofiziala sortzeko Foru Legea

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobeitzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Foru Legeko 44. artikuluko 26. idatz-zatiak adierazten duenez, Nafarroak eskumen osoa du lanbide elkargoen eta lanbide tituludunetako jardunaren arloetan, legeria orokorrekin bat.

Artikulu horretan xedaturikoaren arabera, eta Nafarroako Foru Komunitateak bere gain hartu dituen eskumenak ikusirik, Nafarroako lanbide elkargoek buruzko apirilaren 6ko 3/1998 Foru Legea eman zen. Foru lege horri erregelamenduzko garapena abenduaren 18ko 375/2000 Foru Dekretuaren bidez eman zitzaion, foru dekretu horrek Nafarroako lanbide elkargoek buruzko Foru Legea garatzen duen erregelamendua onetsi baitzuen. Hori horrela, eskaera bat aurkeztu da Nafarroako Podologoek Elkargoa sortzeko. Eskaera hori Foru Komunitatean aritzen diren eta titulu ofiziala duten profesionalik gehienek izenpetu dute. Izan ere, lanbide horretantxe jarduteko aurkeztu dute eskaera hori eta foru lege hau izapidaketa horren ondoriozkoa da.

Podologiako Diplomatura ekainaren 24ko 649/1988 Errege Dekretuaren bidez sortu zen. Aipatu errege dekretuak podologiako ikasketa planen jarraibide orokorrak finkatu zituen eta horietara egokitu beharra dute Unibertsitate Eskolek.

Aurretik, martxoaren 29ko 727/1962 Dekretuak podologiako espezializazioa ezarri zuen osasun laguntzaile teknikoentzat. Dekretuan podologoaren lanbide-esparruaren mugak finkatu ziren, baita praktikanteek eta osasun laguntzaile teknikoek zer baldintza bete behar dituzten podologo diploma hori lortzeko, betiere dekretua promulgatu

zen egunean kirurgilari-pedikuro lanetan ari zirela ziurtatuta.

Azkenik, 1992ko azaroaren 25eko Aginduek baliokidetzat hartu zituen osasun laguntzaile teknikoek podologia espezialitatea eta unibertsitateko Podologiako Diplomatura.

Lehenago aipatu den arau eta lanbide autonomia kontuan hartuz, komenigarritzat eta beharrezkotzat jo da lanbide elkargo bat sortzea Nafarroako Foru Komunitateko podologoak bildu, lanbide hori eta bazkideen lanbide-interesak ordezkatu eta defendatzen dituen, gizartearen orotariko interesekin bat, eta legeen arabera lanbide horretan jarduteko era antolatzen duena.

Horrenbestez, Nafarroako Podologoek Elkargo Ofiziala sortzeko interes publikoko arrazoiak daudenez, foru lege honen bidez elkargo hori sortzen da.

1. artikulua. Izaera eta araubide juridikoa.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Podologoek Elkargo Ofiziala sortzen da, zuzenbide publikoko korporazio gisa. Nortasun juridiko propioa du, eta ahalmen osoa bere helburuak eta eginkizunak betetzeko.

2. Lanbide elkargoak nortasun juridikoa izanen du Foru Lege honek indarra hartzen duenetik eta jarduteko gaitasuna gobernu-organoak eratzten direnetik.

2. artikulua. Jarduteko eremua.

Nafarroako Podologoek Elkargo Ofizialaren jarduteko eremua Nafarroako Foru Komunitatea da.

3. artikulua. Elkargoko kide egiteko eskubi-dea.

Ondokoak egin daitezke Nafarroako Podologoek Elkargo Ofizialeko kide:

1. Ekainaren 24ko 649/1988 Dekretuari eta hura garatzeko arauak jarraikiz, Podologiako Diplomaturako tituluaren jabe direnak, eta dekretu horretan egiten den lanbide eskubideen errekonozimenduaren ondorioz, podologo diploma dutenak, martxoaren 29ko 727/1962 Dekretuan ezarritakoaren arabera emana.

4. artikulua. Lanbidea.

Nafarroako Foru Komunitatean podologo lanetan aritzeko ezinbesteko betebeharra da Nafarroako

roako Podologoien Elkargo Ofizialeko kidea izatea, salbu eta beste lurralde bateko Podologoien Elkargoko kidea dela frogatzen bada.

5. artikulua. Arautegia.

Nafarroako Podologoien Elkargo Ofiziala lanbide elkargoei buruzko legeen, haien estatutuen eta, hala bada, barne araubideko erregelamenduaren arabera antolatuko da.

Xedapen iragankor bakarra

1. Nafarroako Podologoien Elkargo Ofiziala sortzeko batzorde sustatzaileak, foru legeak indarra hartu eta sei hilabeteko epean, Podologoien Elkargoko behin-behineko estatutuak onetsi beharko ditu, honakoak arautzen dituztenak:

a) Elkargokide bihurtzeko betebeharrak, elkargoa osatzeko biltzarrean parte hartzea ahalbidetuko dutenak.

b) Elkargoa osatzeko biltzarrerako deialdiko prozedura eta haren funtzionamendua. Deialdi

hori Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

2. Podologoien Elkargo Ofiziala osatzeko biltzarrak eginkizun hauek izanen ditu:

a) Elkargoaren behin betiko estatutuak onestea.

b) Elkargoko gobernu-organoetako kideak hautatzea.

3. Elkargoaren behin betiko estatutuak, onetsi ondoren, Elkargoa osatzeko biltzarraren aktaren ziurtagiriarekin batera, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentura igorriko dira. Kontseilariak Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agindua emanen du, Departamentuko organo eskudunak haiek legeekin bat datozela adierazi ondoren.

Azken xedapen bakarra

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Foru Legea, Nafarroako Fisioterapeuten Elkargo Ofiziala sortzekoa

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2002ko maiatzaren 23an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Fisioterapeuten Elkargo Ofiziala sortzeko Foru Legea onetsi zuen.

Biltzarreko Erregelamenduko 143. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 27an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Legea, Nafarroako Fisioterapeuten Elkargo Ofiziala sortzekoa

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobe-tzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Foru Legeko 44. artikuluko 26. idatz-zatiak adierazten duenez, Nafarroak eskumen osoa du lanbide elkargoen eta lanbide tituludunetako jardunaren arloetan, legeria orokorrekarekin bat.

Artikulu horretan xedaturikoaren arabera, eta Nafarroako Foru Komunitateak bere gain hartu dituen eskumenak ikusirik, Nafarroako lanbide elkargoei buruzko apirilaren 6ko 3/1998 Foru Legea eman zen. Foru lege horri erregelamenduzko garapena abenduaren 18ko 375/2000 Foru Dekretuaren bidez eman zitzaion, foru dekretu horrek Nafarroako lanbide elkargoei buruzko Foru Legea garatzen duen erregelamendua onetsi baitzuen. Hori horrela, eskaera bat aurkeztu da Nafarroako Fisioterapeuten Elkargoa sortzeko. Eskiera hori Foru Komunitatean aritzen diren eta titulu ofiziala duten profesionalik gehienek izenpetu dute. Izan ere, lanbide horretantxe jarduteko aurkeztu dute eskaera hori eta foru lege hau izapidaketa horren ondoriozkoa da.

Abenduaren 12ko 2965/1980 Errege Dekretuaren bidez, fisioterapiaren irakaskuntza ofizial bihurtu eta unibertsitatean sartu zen. Arau hark diploma sortu zuen ikasketa horietarako.

Lehenago, 1957ko uztailaren 26ko Dekretuaren bidez, fisioterapia espezialitatea sortu zen osasun langile teknikoendako.

Halaber, urriaren 26ko 1414/1990 Errege Dekretuaren bidez, fisioterapiako diploma izeneko unibertsitate-titulu ofiziala sortu eta titulu hori lortzeko ikasketa planetako jarraibide orokorrak eman ziren.

Lehenago aipatu den arau eta lanbide autonomia kontuan hartuz, komenigarritzat eta beharrezkotzat jo da lanbide elkargo bat sortzea Nafarroako Foru Komunitateko fisioterapeutak bildu, lanbide hori eta bazkideen lanbide-interesak ordezkatu eta defendatzen dituen, gizartearen orotariko interesekin bat, eta legeen arabera lanbide horretan jarduteko era antolatzen duena.

Horrenbestez, Nafarroako Fisioterapeuten Elkargo Ofiziala sortzeko interes publikoko arrazoiak daudenez, foru lege honen bidez elkargo hori sortzen da.

1. artikulua. Izaera eta araubide juridikoa.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Fisioterapeuten Elkargo Ofiziala sortzen da. Zuzenbide Publikoko korporazio bat izanen da, berezko nortasun juridikoa eta bere helburuak bete eta bere eginkizunetan aritzeko erabateko gaitasuna izanen duena.

2. Lanbide elkargoak foru lege honek indarra hartzen duenez geroztik izanen du nortasun juridikoa. Gobernu-organoak osatzen direnez geroztik izanen du aritzeko gaitasuna.

2. artikulua. Jarduteko eremua.

Fisioterapeuten Elkargo Ofiziala Nafarroako Foru Komunitatean arituko da.

3. artikulua. Elkargoko kide egiteko eskubidea.

Ondokoak egin daitezke Nafarroako Fisioterapeuten Elkargo Ofizialeko kide:

1. Fisioterapiako diploma izeneko unibertsitate-titulua daukatenak, urriaren 26ko 1414/1990 Errege Dekretuarekin bat, edo harekin homologatutako bestelako titulazioa dutenak, edo, azkenik, agintari eskudunak lanbidean aritzeko aitortutako titulazioren bat daukatenak.

2. Fisioterapiako diploma izeneko unibertsitate-titulua daukatenak, abenduaren 12ko 2965/1980 Errege Dekretuarekin eta hori garatzen duten arauekin bat.

3. 1957ko uztailaren 26ko Dekretuaren arabera, fisioterapia espezialitatea aitorturik daukaten

profesionalak eta dekretu hori eman baino lehen fisioterapian aritzeko gaituriko profesionalak.

4. artikulua. Lanbidea.

Nafarroako Foru Komunitatean fisioterapian aritzeko ezinbesteko betebeharra da Nafarroako Fisioterapeuten Elkargo Ofizialeko kidea izatea, salbu eta beste lurralde bateko Fisioterapeuten Elkargoko kidea dela frogatzen bada.

5. artikulua. Arautegia.

Nafarroako Fisioterapeuten Elkargo Ofiziala lanbide elkargoei buruzko legeen, haien estatu-tuen eta, hala bada, barne araubideko erregelamenduaren arabera antolatuko da.

Xedapen iragankor bakarra

1. Espainiako Fisioterapeuten Elkarteak Nafarroan duen ordezkariak, foru lege honek indarra hartu eta sei hilabeteko epean, Nafarroako Foru Komunitateko Fisioterapeuten Elkargo Ofizialaren behin-behineko estatutuak onetsi beharko ditu, ondokoak arautzeko:

a) Elkargokide bihurtzeko betebeharrak, elkargoa osatzeko biltzarrean parte hartzea ahalbidetuko dutenak.

b) Elkargoa osatzeko biltzarrerako deialdiko prozedura eta haren funtzionamendua. Deialdi hori Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

2. Fisioterapeuten Elkargo Ofiziala osatzeko biltzarrak eginkizun hauek izanen ditu:

a) Elkargoaren behin betiko estatutuak onestea.

b) Elkargoko gobernu-organoetako kideak hautatzea.

3. Elkargoaren behin betiko estatutuak, onetsi ondoren, Elkargoa osatzeko biltzarraren aktaren ziurtagiriarekin batera, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentura igorriko dira. Kontseilariak Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agindua emanen du, Departamentuko organo eskudunak haiek legeekin bat datozela adierazi ondoren.

Azken xedapen bakarra

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta bihamunean hartuko du indarra.

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Legea, toki administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea aldatzeari buruzkoa

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2002ko maiatzaren 23an egindako Osoko Bilkuran, toki administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea aldatzeari buruzko Foru Legea onetsi zuen.

Aipatu foru legea, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 20.2 artikuluekin eta Biltzarreko Erregelamenduko 150. artikuluekin bat, gehiengo osoko prozeduraz onetsi da proiektu osoko azken bozketaren bitartez.

Biltzarreko Erregelamenduko 143. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 27an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Legea, toki administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea aldatzeari buruzkoa

ZIOEN AZALPENA

Espainiako 1978ko Konstituzioak jasotzen duen Administrazio ereduaren abiapuntua da administrazio publikoak interes orokorren zerbitzuan dauden eta deszentralizazio nahiz eraginkortasun printzipioei jarraituz jarduten duten erakundetzat hartzea.

Gauza jakina da 1978ko Konstituzioak toki entitateei euren interesak kudeatzeko autonomia aitortzen diela, 137. artikuluan. Eta begi-bistakoa da printzipio horretatik eratorria dela toki-erkumeen sistemaren egituraketa. Dena den, Konstituzioak toki erakundeei toki autonomia bermatzen badie ere, ez du aipaturiko autonomia egikaritu daitekeeneko arloen zerrenda zehatzik agertzen.

Toki Araubidearen Oinarrien apirilaren 2ko 7/1985 Legea da toki administrazioaren araubide juridikoaren oinarriak zehazteko eginkizuna duen

araua, eta, 2. artikuluan, legegileari agintzen dio Konstituzioak bermatzen duen autonomia hori eraginkorra izateko beharrezkoak diren eskumenak berma diezazkiela toki erakundeei.

Tokiko botereetako ordezkariak eskumen gehiago eskatzen dituzte, eta hala dago jasota Espainiako Udal eta Kontzejuen Federazioak hartutako zenbait erabakitan. Horrek bidea eman zuen, behar ziren negoziazioak egin ondoren, "Toki Ituna garatzeko akordioa negoziatzeko oinarriak" onesteko. Oinarri horiek, besteak beste, honakoa ekarri zuten: Gorte Nagusiek apirilaren 21eko 11/1999 Legea onestea. Lege horrek, hain zuzen ere, zenbait aldaketa eragin zituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko erakundeetan eta antolamenduan.

Foru lege honen xedea da Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea egokitzea, Estatuko legedian gertaturiko zenbait aldaketa sartuz, toki erakundeek berme demokratiko handiagoak eskainiz funtzionatzea lortzearren, betiere Nafarroako toki erakundeen errealitatea gozoan izanik.

Hona hemen aldatzen diren artikuluek: 8, 76, 77, 79, 83, 130, 132, 226, 237, 319, 325, 333, 341 eta 342. Artikulu hauei erredakzio berria ematen zaie edo aldaketa edo gehiekta bat sartzen zaie.

Artikulu bakarra.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeko jarraian aipatzen diren artikulu eta idatz-zatietan zenbait aldaketa egiten dira. Hona testua:

8. artikulua. Testu berria ematen zaio artikuluari:

"8. artikulua.

1. Nafarroako udalen antolamendua eta horien gobernu- eta administrazio-organoen eraketa

Estatuko gainerakoek dituztenei aplikatzen zaizkien xedapenei lotuko zaizkie.

2. Udalen gobernu- eta administrazio-organoen eskurantzak legedia orokorrean ezarritakoari jarraikiz erabiliko dira, Foru Lege honen ondorio diren berezitasunak ezertan galarazi gabe.

3. 5.000 biztanle baino gehiagoko udaletan eta gutxiagokoetan ere –baldin eta haien Erregelamendu Organikoak hala xedatzen badu edo osoko bilkurak hala erabakitzen badu–, honako eginkizun hauek izanen dituzten organoak izanen dira: osoko bilkuran erabaki beharrekoak diren gaiei buruzko azterlan eta txostenak egin edo kontsulta eskaintzea, eta alkatearen, gobernu batzordearen eta delegaturiko eginkizunak dauzkaten zinegotzien kudeaketaren jarraipena egitea. Hori guztia, osoko bilkurari dagozkion kontrol-eskumenak galarazi gabe. Udalbatza osatzen duten talde politiko guztiek organo horietan parte hartzeko eskubidea izanen dute, Estatuko legediak ezarritako bermeek babesturik.”

76. artikulua. Testu berria ematen zaio artikuluari:

“76. artikulua.

1. Toki erakundeetako kide hautetsiek beren esku izanen dituzte erakunde horietan dauden dokumentu eta artxibo guztiak eta haien eginkizuna betetzeko beharrezkoak direnak.

2. Toki entitateek erregelamendu bidez arautu ahalko dute eskubide horren egikaritzea. Eskaera arrazoiak azalduz ebatzi beharko du alkateak edo udalburuak edo gobernu batzordeak, Udaleko erregistroan argitaratu eta bost egun naturaleko epean.

3. Udalbatzako kideei informazioa ukatzen dienak bere gain izanen du horren erantzukizuna.”

77. artikulua. Artikuluari testu berria ematen zaio:

“77. artikulua

1. Osoko bilkura arrunta gutxienez ere hilabetean behin eginen da 20.000 biztanle baino gehiagoko udaletan; bi hilabetean behin 5.001 eta 20.000 biztanle bitarteko udaletan, eta hiru hilabetean behin 5.000 biztanle baino gutxiagoko udaletan.

2. Ohiz kanpoko osoko bilkurak izanen dira:

a) Udalbatzako buruak erabakitzen duenean.

b) Udalbatzako kideen legezko kopuruaren laurdenak, gutxienez ere, eskatzen duenean. Zinegotzi bakoitzak ezin izanen du urtean horietako hiru baino gehiago egin daitezen eskatu.

c) Legezko xedapen batek agintzen duenean.

3. Aurreko zenbakiko b) letrak aipatzen duen kasuan, eskabidea egin eta ondoko lau egunen barnean egin beharko da bilkurarako deia, eta bilkura egitea ezin izanen da hamabost egun baliodun baino gehiago atzeratu eskatu zen egunetik. Deialdiari atxikiko zaio ekimenaren egileek proposaturiko gai-zerrenda, eta udalbatzako buruak beste gai batzuk ere sar ditzake, egokitzen jotzen badu.

Aipaturiko zinegotzi-kopuruak eskaturiko ohiz kanpoko osoko bilkurarako deirik Udalbatzako buruak ez badu adierazi den epean egiten, hartarako deia automatikoki egina geldituko da epe hori bukatu eta hamargarren egun balioduneko hamabietarako. Udalbatzako idazkariak horren berri emanen die udalbatzako kide guztiei lehen adierazitako epea bukatu eta biharamunean. Udalbatzako burua edo legez haren ordezkari izan behar duena ez badaude, osoko bilkura behar bezala eratuta egonen da Foru Lege honetako 79.1 artikuluan eskaturiko quoruma betetzen baldin bada; kasu horretan, bilkurako buru arituko da bertaratu artean zaharrena dena.”

79. artikulua. 3. zenbakiko idatz-zati berri bat gehitzen da. Hona testua:

“79. artikulua.

3. Toki erakundeetako kideek bilkura publikoen soinuaren grabazioa egin ahal izanen dute, aurretik Udalbatzako buruari horren berri ematen badiote.”

83. artikulua. Testu berria ematen zaio artikuluari:

“83. artikulua.

1. Osoko bilkura arruntetan, Udalbatzako gainerako organoak kontrolatzen emandako bilera-zatiak izaera berekia izan beharko du, ebazpenak emateko zatitik bereizita. Haren funtzionamenduan eta, kasu bada, araubidean, eraginkortasunez bermatu beharko da udal talde guztiek parte hartu ahal izatea eskaerak, galderak eta mozioak aurkezteko eginkizunean.

2. Udalbatzako kideek osoko bilkuran eskaerak edo galderak egin ahalko dituzte, ahoz nahiz idatziz.

3. Bilkura batean ahoz eginiko galderei ez badie berehalako erantzunik ematen galdera horien hartzaileak, hurrengo bilkuran eman behar zaie arrapostu, eta bilkura hasi baino gutxienez ere hogeita lau ordu lehenago egindako galdera idatziei bilkura horretantxe emanen zaie arrapos-

tu, galderaren hartzaileak hurrengo saiorako atzera daitezzen eskatu ezean.

130. artikulua. Testu berria ematen zaio artikuluari:

“130. artikulua.

1. Udalbatzako buruaren eskumeneoak izanen dira toki entitateen ondasunen erabilerari buruzko egintzak, honako kasu hauetan:

a) Lizentziak emateari buruzkoak direnean.

b) Ondasun pribatuen kostu bidezko erabilera egitean, epea bost urtekoa baino luzeagoa ez bada eta zenbatekoak lehen aurrekontualdiko aurrekontuen baliabide arrunten ehuneko bost gainditzen ez badu.

2. Gainerako kasuetan, eskumena osoko bilkurarena izanen da.”

132. artikulua. Testu berria ematen zaio artikuluari:

“132. artikulua.

1. Toki erakundeen ondasunak besterentzeko, aldeztatik besterengarritasun deklarazioa egin behar da, jatorriz ondare-ondasunak direlako, edo izaera hori hasieran zuten kalifikazio juridikoa aldatzeagatik lortu dutelako.

2. Besterentzea egiteko, toki erakundeko osoko bilkuraren edo gobernu- eta administrazio-organo gorenaren erabakia behar da. Besterentzekoa den ondasunaren zenbatekoak aurrekontuen baliabide arrunten ehuneko hogeitaz gainditzen badu, erabakia udalbatzako kideen legezko kopuruaren gehiengo absolutuz hartuko da.

Hala ere, udalbatzako buruak toki erakundearen helburuak betetzeko beharrezkoak ez diren ondasun higigarri eta higiezinak besterendu ditzake, horien zenbatekoak aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko bost gainditzen ez badu.

3. Ondasunak besterentzeko, aldeztatik horien balio justua modu fede-emailean frogatuko duen balorazio tekniko beharko da.

4. Ohizko gastuak finantzatzeko ezin izanen dira ondare-ondasunak besterendu, soberakin diren lur zatiak edo gauza ez erabilgarriak direnean salbu.

226. artikulua. Testu berria ematen zaio artikuluari.

“226. artikulua.

1. Kontratatzeko eskumena honako hauek izanen dute:

A. Udal eta kontzejuetan:

a) Batzako buruak, baldin eta zenbatekoak ez badu aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko bost gainditzen, eta, zenbatekoa aipaturikoa baino handiagoa denean, urtebetekoa baino iraupen luzeagokoak ez izanik urteko aurrekontuan kontsignaturikoa baino kreditu handiagoak beharrezkoak ez dituztenak. Halaber, urte bat baino gehiagorako kontratazioak haren eskumen izanen dira haien iraupena lau urte baino luzeagoa ez denean, baldin eta urte bakoitzean ordaindu beharreko kopuruaren batura ez bada aipaturiko ehuneko baino handiagoa. Ehuneko hori lehen aurrekontualdiko aurrekontuaren baliabide arrunten gainean hartu behar da.

b) Gainerako kasuetan, osoko bilkurak, Batzarreak edo Kontzeju Irekiak.

B. Mankomunitate, tradiziozko batasun eta elkarte izaerako bestelako toki erakundeetan, bakoitzaren estatutuetan xedatutakoari jarraituko zaio, eta udalentsat ezarritakoa ordezkotako gisa aplikatuko da.

2. Toki erakundeen organoei esleitutako kontratatze ahalmenak kasuan kasuko administrazioaren beste organo batzuei delegatu ahalko zaizkie.

Osoko Bilkurak bere eskumeneoak diren urte bat baino gehiagorako kontratuak emateko duen ahalmena ezin izanen da delegatu. Legeak kontratua ezartzeko gehiengo kualifikatua eskatzen duenean ere ez, oro har.

237. artikulua. 3. idatz-zati berri bat gehitzen zaio:

“237. artikulua.

3. Nafarroako Administrazio Publikoen Institutua arduratuko da toki entitateetako funtzionarioen prestakuntzaz. Dena den, toki entitateek eta haien menpeko elkarteek prestakuntza jarduerak batera egiteko hitzarmenak sinatu ahalko dituzte erakunde horrekin.”

319. artikulua. 1. arauari Testu berria ematen zaio:

“319. artikulua.

1. Horrelakoak emateko eskumena toki erakundeko buruarena izanen da, arloko legediak besterik xedatu ezean.”

325. artikulua. Testu berria ematen zaio artikuluari:

“325. artikulua.

1. Tokiko erregelamenduak eta ordenantzak honako prozedura honi jarraituz onetsiko dira:

a) Toki erakundeko osoko bilkurak hasierako onespena ematea.

b) Jendaurrean jarri, onespen erabakia Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta erakundeko iragarki oholean iragarri ondotik, hogeita hamar egunez gutxienez, epe horretan herritar eta interesatu legitimoek espedientea aztertu eta erreklamazioak, kontrako iritziak edo oharra egin ahal izan ditzaten.

c) Aurkezten diren erreklamazio, kontrako iritzi edo oharra ebaztea, eta a) atalean aipatu den organoak behin betiko onespena erabakitzea.

Hala ere, hasierako onespen-erabakia behin betikoa izatera pasako da baldin eta erreklamazio, kontrako iritzi edo oharrik aurkeztu ez bada.

2. Herri ondasunen aprobetxamendua arautzen duten ordenantzak, baita fiskalak ere, onesteko, beharrezkoa da batza osatzen duten kideen legezko kopuruaren gehiengo absolutuak aldeko botoa ematea.

3. Erregelamendu eta ordenantzak aldatzeko egin beharreko tramiteak onespena emateko berberak izanen dira.”

333. artikulua. Testu berria ematen zaio artikuluari:

“333. artikulua.

1. Nafarroako toki erakundearen egintza eta erabakietatik Administrazioarekiko Auzietako Jurisdikzioaren kontrolari lotuak daudenak inpugnatzen ahal dira honako bide hauetako baten bitartez:

a) Legedi orokorrak ezarritako jurisdikzio- edo administrazio-errekurtsioak eskudun diren organoetan aurkeztuz.

b) Kapitulu honen bigarren atalak aipatzen duen gora jotzeko errekurtsioa Nafarroako Administrazio Auzitegian aurkeztuz. Auzitegi horren ebazpenek, espresuek nahiz ustezkoek, foru administrazioaren bideari amaiera emanen diote, eta administrazioarekiko auzietako jurisdikzio organo eskudunetan inpugnatu ahalko dira.

2. 1 b) zenbakian eta kapitulu honetako bigarren atalean xedatua ulertu behar da toki erakundeak Estatuko edo Foru Komunitateko administrazioetik delegatu zaizkien eskumenak erabiliz gauzaturiko egintzen edo harturiko erabakien aurka bidezkoak diren errekurtsioak eta administrazio delegatzaileak horiek ebatzi ahal izana ezertan galarazi gabe.”

341. artikulua. Testu berria ematen zaio artikuluari:

“341. artikulua.

Foru Komunitateko administrazioak juzkatzen badu toki erakunde baten egintza edo erabakiak ordenamendu juridikoa hausten duela Foru Komunitatearen eskumenekoak diren gaietan, Foru Komunitatearen eskumenak gutxitu, haren jarduna oztopatu edo toki entitateen eskumenak gainditzen dituztela, neurri hauetako bat hartu ahalko du:

a) Toki erakundeari errekerimenduz eskatzea egintza edo erabaki hori deusezta dezan.

b) Aipaturiko egintza edo erabakia administrazioarekiko auzietako jurisdikzioan zuzenean inpugnatzea.

342. artikulua. Testu berria ematen zaio artikuluari.

“342. artikulua.

1. Foru Komunitateko administrazioak aurreko artikuluko a) letrak aipatzen duen errekerimendua erabiltzea erabakitzen duenean, hura artikuluko hau espreski aipatuz formulatu beharko du, egintza edo erabakiaren jakinarazpena jaso ondorengo hamabost egun balioduneko epean. Errekerimendua arrazoitua izan beharko du, urratutzat jotzen den araudia zein den adierazi beharko du, egintza edo erabakia deusezta dadila eskatu, eta egintza edo erabakiaren egile den toki erakundeak deuseztapena zein epetan egin beharko duen adierazi. Epe hori ezin izanen da hilabetekoa baino luzeagoa izan.

2. Toki erakundeak errekerimenduari kasurik egiten ez badiu, Foru Komunitateko administrazioak egintza edo erabakia inpugnatu ahalko du, administrazioarekiko auzietako jurisdikzioan, jurisdikzio hori arautzen duen legeak izaera horretako errekurtsioa aurkezteko adierazitako epean, zeina zenbatuko baita toki erakundeari zuzendutako errekerimenduaren muga-egunaren biharamunetik aurrera edo hark errekerimenduari ezezko erantzuna emateko bidalitako jakinarazpena jasotzen den egunaren biharamunetik aurrera, deuseztapenerako ezarritako epearen barnean jasotzen bada.

Azken xedapen bakarra

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hogeita hamar egun beranduago hartuko du indarra.

Foru Legea, ezgaituak lan merkatuan sartzeari buruzkoa

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2002ko maiatzaren 23an egindako Osoko Bilkuran, ezgaituak lan merkatuan sartzeari buruzko Foru Legea onetsi zuen.

Biltzarreko Erregelamenduko 143. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 27an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Legea, Foru Komunitatean ezgaitasuna duten pertsonen enplegua lortzeari buruzkoa

ZIOEN AZALPENA

Minusbaliatasun duten pertsonak 31.003 dira guztira; hau da, Nafarroako populazioaren ehuneko 6. Horietatik, ehuneko 44 Iruñerrian daude.

Minusbaliotasun-motei dagokienez, ehunekorik handiena egiten dutenak hezur eta giltzaduretako arazoek eta eritasun kronikoek eragindakoak dira, guztizkoaren ehuneko 53 hartzen baitute.

Legezko minusbaliotasun-mailaren ikuspegitik, ehuneko 60k ehuneko 33 eta 65 bitartekoa du, eta ehuneko 22k ehuneko 75 baino gehiagoko minusbaliotasuna dauka.

Guztizkoaren ehuneko 42k 66 urte baino gehiago dauka, eta ehuneko 16k beste pertsona baten laguntza beharrezkoa du.

Bestalde, jende-multzo honek, lanaren ikuspegitik, Nafarroako batez bestekoa baino hiru bat aldiz handiagoa den langabezia-tasa pairatzen du.

Jabetu behar dugu instituzioek ahaleginak egiten dituztela pertsona eta talde kaltetuenei laguntza emateko, baina oso gertu ditugu, baita ere, bestelako gabezia garrantzitsu batzuk, eta gure ustez erabakigarria da, beharrezko funtsak jartzearaz gain, programa eta proiektu garrantzizko eta ongi kudeatuei esleitzea funts horiek.

Horrela, Kontuen Ganbarak "Ezgaituak (1995etik 1999ra)" aurrekontu-programari buruz eginiko fiskalizazio txostenaren ondorioek gai garrantzitsuetan kontrol eta ikuskatze gabeziak daudela erakusten dute.

Kontuen Ganbararen txostenak aztertutako puntuetako bat laneratzea lortzeko legegintza-

neurrien egiazko eragina izan da. Neurri horietako batzuk dira administrazio publikoak deituriko postuen ehuneko 3 gordetzea, eta plantillan ezgaituak dauzkaten enpresei kontratu publikoetan lehentasuna ematea.

Txostenak agerian uzten duen bezala, begibistakoa da administrazioek ez dituztela, kontratazio-arloan, euren jarduketak legeek ezarritakora egokitzen.

Kontuen Ganbarak informazioa eskatu zien Foru Komunitateko administrazioako departamentuei eta Nafarroako udal nagusiei, euren iritzia eman zezaten ehuneko 33 edo gehiagoko ezgaitasuna duten langileek lanpostu hutsen ehuneko 3 bete ahal izan dezaten postu-kopuru horren erreserbaren aplikazio praktikoari buruz. Era berean, administrazio-klausula partikularren orriek plantillan langile minusbaliatuen kopuru jakin bat daukaten enpresei kontratuak esleitzeko lehentasuneko irizpideei buruz informazioa eskatu zen.

Emaitza honako hau da:

Zentroa	Deitutako lanpostuak	Betetako lanpostuak	Minusbaliatuak
Administrazioa, erroa	642	609	7
Osasunbidea	411	406	6
Hezkuntza	68	68	–
Guztira	1.121	1.083	13

Beraz, deialdiko guztizko lanpostu-kopurutik, ehuneko 1,16 baizik ez da bete minusbaliatuekin. Ehuneko hori ehuneko 1,2ra igotzen da erreferentziatzat hartzen bada betetako postu-kopurua.

Egoera horrez gain, aipa liteke Nafarroako Gobernuaren mendeko enpresa publikoetan neurri horrek izan duen emaitza. Enpresa publiko horietan, 500 langiletatik, 5 pertsona minusbaliatu daude guztira, kontuan izan gabe ITG Ganadero, Agrícola, NASERSA, Viveros y Repoblaciones eta beste enpresa batzuk.

Ezgaituen gizareratzea lortzeko oinarritzko bideetako bat haien laneratzea da. Gainera, minusbaliotasun edo ezgaitasunen bat daukaten pertsonen gizaratean aktiboki parte hartu ahal izateko bide naturala da.

1. artikulua. Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileriaren estatutua aldatzea.

Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileriaren estatutuaren testu birbildua onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Foru Dekretu Legegileko 7. xedapen gehigarria aldatu eta hone-la geldituko da:

1. Nafarroako administrazio publikoetako lan eskaintza publikoetan, gutxienez lanpostu betegabeen 100eko 5 ezgaituentzako gordeko da, baldin eta horien ezintasun maila 100eko 33koa edo handiagokoa izan, hauta-probak gainditu eta, hala eskatzen zaienean, aipatutako ezintasun maila eta eginkizunak burutzeko gai direla egiaztatzen badute.

Pertsona horiek betetako lanpostuek ez badute deitutako lanpostuen ehuneko 3ko tasa egiten, betegabeko lanpostuak hurrengo ekitaldiko ehuneko 5eko kupoari gehituko zaizkio, ehuneko 10eko gehieneko mugarekin.

2. Aurreko atalean finkaturiko minusbaliotasun-maila izan eta deialdi batean beste txandetako edozeinen bitartez lanpostu bat lortzen dutenek lehentasuna izanen dute txanda librekoen gainetik bete beharreko lanpostua aukeratzeko.

3. Foru Komunitateko administrazioan eta haren menpeko erakunde autonomoetan 1. idatzatiko lehen lerroaldean ezarritako ehunekoak betetzen ez den bitartean, organo eskudunek aitortutako ezgaitasuna duten pertsonak lehentasuna izanen dute aldi baterako kontratatzeke, lehiaketa-oposizioa gainditu baina lanposturik gabe gelditu direnen zerrenda agortutakoan.

2. artikulua. Nafarroako Administrazio Publiko-koen kontratuei buruzko Legea aldatzea.

1. Nafarroako Administrazio Publiko-koen kontratuei buruzko ekainaren 16ko 10/1998 Foru Legeko 62.8 artikulua aldatu eta honela geldituko da:

“8. Administrazio klausula partikularren plegu guztiek, zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuetan, esleipen irizpideen artean, ezintasunak dituzten pertsonak lanean integratzearena jasoko dute, kaudimen teknika frogatzeko unean plantillaren ehuneko 4 baino gehiago ezintasun fisiko handia, gorreri sakon eta larriak, ezintasun psikikoa edo adimen eritasuna duten langileek osatua duten enpresak balioesteko eta horiei puntuazio ona emateko.”

2. Nafarroako Administrazio Publiko-koen kontratuei buruzko ekainaren 16ko 10/1998 Foru Legeko 9. xedapen gehigarria aldatu eta honela geldituko da:

“Bederatzigarrena. Kontratazioa plantillan minusbaliotasuna duten langileak dituzten enpresek.

Kontratazio-organoe-ko administrazio klausula partikularren pleguetan lehentasuna ipiniko dute kontratuak esleitzerakoan proposamen jakin batzuetarako; alegia, beren kaudimen teknika frogatzeko unean plantillan ehuneko 3 baino txikiagoa ez den langile minusbaliotuen kopurua duten enpresa publikoek edo pribatuek aurkezten dituztenendako. Beti ere proposamen horiek, esleipenaren oinarri diren irizpide objektiboen ikuspuntutik onenak direnekin parekatzen ahal direnean.”

3. Nafarroako Administrazio Publiko-koen kontratuei buruzko ekainaren 16ko 10/1998 Foru Legeko 14. xedapen gehigarria aldatu eta honela geldituko da:

“Hamalagarrena. Zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuen esleipenari dagokionean, esleipendun enpresek 25 langile baino gehiago badute, enpresetako plantillako langileen % 4k, gutxienez, akats fisiko larria, gortasun larri eta sakoan akats psikikoa edo adimen gaisotasun larria beharko du izan.”

Xedapen gehigarriak

Lehena. Nafarroako administrazio publikoak eta haren mendeko erakundeek enpresa bateko kapitalean gehiengo partaidetza badute –zuzena ala zeharkakoa–, enpresa publiko horiek, lanpostuen deialdietan, nahitaez gorde beharko dute plantillako lanpostuen ehuneko 5 ezgaitasuna duten pertsonentzat.

Bigarrena. Nafarroako administrazio publikoek beharrezkoak diren neurriak ezarriko dituzte, ezgaitasuna duten langileenganako bereizkeria zuzen nahiz zeharkakorik dakarten jarraibide, irizpide eta jarrerak gerta ez daitezen lan ingurunean.

Azken xedapenak

Lehena. Nafarroako Gobernuari esku ematen zaie foru lege hau garatzeko beharrezkoak diren erregelamendu-xedapen guztiak emateko.

Bigarrena. Indarrak gabe uzten dira foru lege honetan ezarritakoari aurka egiten dioten maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak.

Hirugarrena. Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Foru Lege proposamena, Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioako goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legea aldatzekoa

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Biltzarrak, 2002ko maiatzaren 23an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioako goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena baztertu zuen.

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikulua xedatutakoarekin bat, erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 27an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Antsoaingo udalerrria hartuko duen oinarrizko osasun eskualde berri bat era dezan

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Osoko Bilkurak, 2002ko maiatzaren 23an egindako bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Antsoaingo udalerrria hartuko duen oinarrizko osasun eskualde berri bat era dezan".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 27an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Antsoaingo udalerrria hartuko duen oinarrizko osasun eskualde berri bat era dezan

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Nafarroako osasun eskualdeei buruzko Foru Legea aldatu eta Antsoaingo udalerrria hartuko duen osasun eskualde oinarrizko berri bat era dezan.

2. Antsoaingo udalerrian osasun-etxe berri bat eraiki dezan azpiegituretan, teknika eta giza baliabideetan dagoen eskasiak osasun arloan eragindako eskaerari erantzuteko eta, bidenabar, herri horren beharretarako egokiagoa izanen den osasun eskualde oinarrizko bati dagozkion programak gauzatzeko.

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuak bultzatutako Kalitatearen Legea errefusatzeko du

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Batasuna Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuak bultzatutako Kalitatearen Legea errefusatzeko du".

Biltzarreko Osoko Bilkurak, 2002ko maiatzaren 23an egindako bilkuran, aurkeztutako mozioa

baztertu zuen. Mozio hori 2002ko maiatzaren 20ko 52. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 27an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
Urte bat 39,07 euro	
Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa 0,96 »	
Bilkura Egunkariaren aleko prezioa 1,14 »	